# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

## 3940

*EBAZPENA, 2013ko abuztuaren 12koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio eta prebentziorako jarduerak eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta eta babesa emateko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2013. urtean zehar diru-laguntzak emateko aukera arautzen eta deitzen duen Ebazpenaren babesean aurkeztutako eskariak aztertuko dituen Hautaketa Batzordearen osaera argitaratzen duena.*

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariak, 2013ko uztailaren 9an, indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio eta prebentziorako jarduerak eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta eta babesa emateko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2013. urtean zehar diru-laguntzak emateko aukera arautzen eta deitzen duen deialdia egin du. Ebazpen hori 2013ko uztailaren 19ko EHAAn argitaratu da.

Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko osatuko den Hautaketa Batzordearen osaera arautzen du aipatutako ebazpenaren 8. artikuluak. Hautaketa Batzordeak arrazoitutako ebazpen-proposamena emango du, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari aurkeztuko dio.

Ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio eta prebentziorako jarduerak eta emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta eta babesa emateko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2013. urtean zehar diru-laguntzak emateko aukera arautzen eta deitzen duen deialdiaren Hautaketa Batzordeko kideak izendatzea, eta bere osaera argitaratzea.

Bigarrena.– 2013ko uztailaren 9ko Ebazpenaren 8. artikuluan araututako Hautaketa Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

a) Batzordeburua:

Ana Alberdi Zubia andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

b) Batzordekideak:

Marian Gonzalez Amo andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Administrazio eta Zerbitzu arloko arduraduna.

Irune Lauzirika Jauregi andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko teknikaria.

Sorne Etxebarria Arrien andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko teknikaria.

Izaskun Fernández Otegi andrea, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Aholkularitza Juridiko arloko arduraduna, bera ere idazkari lanetan arituko baita.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abuztuaren 12a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.